

HAMARGARREN GAIA: ESTATUAREN LURRALDE ANTOLAKETA

1.SARRERA

Estatu era ezberdinak dira, estatu unitarioa eta estatu konplexuak. Estatu autonomikoa hauen erdibidean dagoela esan dezakegu. Halaber, autonomia estatuaren ideari loturik ditugu deszentralizazio politikoa eta administratiboa. Bien arteko desberdintasun nagusia da, lurraldez lurralde botere judizial ezberdinak topa ditzakegula, autonomia soilik administratiboa denean, entitate lokaletan ezin dira legeak onartu; hau da autonomia administratiboa bada jakiteko botere judizialari erreparatu behar zaio.

Deszentralizazioan bi entitate sartzen dira jokoan, Espainian adibidez; Madril (kongresua ta senatua) ta autonomien entitateak.

Deskontzentrazioa dagoela esan ohi dugu noiz administrazio baten pean (botere zentro bakarra) leku askotan dagoenean.

Formula autonomikoa malgua da; hau da, tokian toki formulak ditu. Autonomia zabaldu daiteke estatu osora edo soilik estatuaren parte batetan. Espainiar estatuan zabaltzen da estatu osora; adibidez Portugalen autonomia ez da lurralde osora zabaltzen, soilik dira lurralde autonomoak irlak (Madeira ta Azores).



2.ESPAINIAR ESTATUA AUTONOMI ESTATU BEZALA

Ez dago erantzun bateratu bat esateko Espainia estatu unitarioa den edo estatu konplexua den; baina bai nahiko onartua dago Espainiar estatuan, estatu autonomikoaren oinarriko elementuak bat egiten dutela federalismoarekin berezko elementuekin, hau esaten da, nola:


- Botereen maila bikoitza dago (estatu eta autonomiak)
- Huteskunde autonomikoak ospatzen dira

- Autonomiek eskumen eremu zabala dute eta finantzaketa objektiboa eta estatu eta autonomi erkidegoen arteko gatazkak auzitegi konstituzionalak konpontzen ditu.

Oinarrizko elementuak hauek izanez, badaude beste elementu batzuk ere estatu unitario izatetik urruntzen direla:

- Hizkuntza koofizialak (autonomi estatuak esaten dute nahi badute hizkuntza koofiziala egitea edo ez, konstituzioaren 3.2.artikulua)
- Zuzenbide zibil berezia (konstituzioak aitortu egiten die autonomi batzuei bere ohiturengatik eta historiagatik zuzenbide zibil propioa izateko aukera)

Zein da Espainiar estatuan autonomia estatuaren oinarri konstituzionala? Espainiar konstituzioaren 2. artikuluan, jasotzen dituen bi ideia (espainiaren batasun ezin hautsizkoa eta horrekin batera autonomiarako eskubidea) eta gero konstituzioaren 2.artikulu hori oinarri hartuta konstituzioaren VIII.tituluan garatu egiten da espainiar estatuaren eredu autonomikoaren ideia (autonomiara iristeko bide ezberdinak planteatu egiten dira; adibidez autonomi estatutu batek izan behar duen gutxieneko edukia); autonomia izango da legegilea eta betearazlea baina ez judiziala, eremu judizialean ez dago autonomiarik.



3.ESTATU AUTONOMIKOAREN PRINTZPIO KONSTITUZIONALAK

Batasun printzipioa eta autonomia eskubidea.

- **Batasun printzipio** hori islatzen da **hiru eremutan** nagusiki, **eremu politikoan** (konstituzioak ezartzen du espainiaren batasun politikoa printzipio politiko bezala, 2.artikuluan, horri gainera gehitzen zaio konstituzioaren arabera subiranotasunaren jabe bakarra Espainiako herria dela ezarri egiten da, 1.2.artikuluan, eta beti ere konstituzioak ezartzen ditu mekanismo zehatzak batasun hori bermatzeko, indar armatuak dira batasun horren berme nagusia), **eremu juridikoan** (konstituzioaren nagusitasunean islatu egiten da 9.1.artikuluan) eta **eremu ekonomikoan** (ikus daiteke konstituzioaren 139.2.artikuluan pertsona eta ondasunen zirkulazio askea).



- **Autonomiarako eskubidea;** konstituzioan ez da mapa autonomikoa finkatzen, konstituzioak planteatzen dituenak dira bide batzuk autonomiara heltzeko, eta edozein kasu bai finkatu behar da autonomiarako eskubideak ezin duela pribilegio ekonomiko edota sozialik suposatu. EAEko kontzertu ekonomikoa ez da pribilegio bat, gestionatzeko beste modu bat baizik. Berdintasuna ez du zertan uniformetasuna inplikatzen.

4.AUTONOMIA LORTZEKO BIDEAK

Nagusiki bi dira: bide motela (espainiar konstituzioaren 143.artikulua) eta **bide azkarra** (espainiar konstituzioaren 151.artikulua). Bien arteko desberdintasuna da bide moteleko autonomiek bost urte (beren estatutua onartu ondoren) itxaron behar dituztela beren eskuduntzak aplikatzeko hau da, 148.artikuluko eskuduntzak zuzenean hartuko dituzte baina estatuak nahi ez dituen eskuduntzak hartzeko bost urte itxaron beharko dituzte espainiar konstituzioaren 149.3.artikulua araberara eta bide azkarrekoek aldiz zuzenean egingo ahal zuten.

Baina batzuk berezitasun batzuekin egin zuten, espainiar konstituzioaren 2.xedapen iragankorraren araberara (nazionalitate historikoei aurreko bidea erraztuko die bide azkarra hartu nahi dutenei). Euskadi, Katalunia eta Galizia

1.xedapen gehigarria (Nafarroa), Nafarroan erabaki zen formalki behintzat foruen eguneratze bat eta hori egin zen honetaz baliatuz, eskubide historikoak onartzen baititu.



5.AUTONOMI ESTATUAREN BILAKAERA

Espainiar estatuan autonomia politikoa lurralde guztitara zabaldu zen → “Café para todos”. Hau eman zen zeren eta espainiar estatuak beti izan du beldur asimetriari ta hori dela eta horregatik autonomia erkidego guztiei eman zien. 1978ko konstituzioa egitean erkidego askok aldarrikapen autonomistei erantzuteko eman zitzaien autonomia lortzeko aukera erkidego guztiei, orduan erantzuna izan zen: nahi izan edo ez autonomia.

Nahiz eta bi abiadura ezberdin artikulatu ziren autonomiara heltzeko batzuk azkarrago eta beste batzuk mantsoago, azkenean gertatu dena izan da berdintze bat autonomi erkidegoen artean; hau da autonomia gutxiago zutenek denborarekin autonomia gehiago zutenekin parekatu dira.

LOAPA: Ley Orgánica de Armonización del Proceso Autonómico

Jakina denez, Tejeroren estatu kolpearen oinarrietariko bat autogobernurako aldarrikapen indartsuak katalunian eta Euskadin izango da. Estatu kolpearen ondoren, LOAPA eratuko dute, autonomia-mailaren tope bat ezartzeko. Horren aurrean Eusko Jaurlaritzak eta Kataluniako Generalitatak konstituzio babes helegitea jarriko dute, Auzitegi konstituzionalari eta honek lege horren hainbat artikulua konstituzioaren aurkakoak zirela esango du, prozesuaren amaieran auzitegiak arrazoia emango dielarik. Auzitegi konstituzionalak lege horretatik atzera bota ez zituen artikuluekin lege berri bat egin zuten → “Ley del Proceso Autonómico”.



Erreformatu diren azkenetako estatutuetatik aipatu behar dira 2006 egin ziren erreformak estatutuetan; bide eman zitzaion erreformatzeko Andaluziako, Valentziako, Aragoiko, Gaztela Leonekoa eta Balearretako estatutuei. Horren arrazoia Katalunia eta Euskadiko estatutuen erreforma.

2001.urtean Ibarretxe Lehendakariak (Ibarretxe Plana) estatutu proiektu berri bat jarri zuen mahai gainean, Euskal Herriaren egoera guztiz aldatzen zuena baina erreformatzeko bide legala jarraitzen duena. Horrela definitzen zen Euskal Herria: “un estado libremente asociado a otro”. Puerto Ricoren egitura jarraitzen du. Estatutu hori Eusko Legebiltzarrean onartu zen, baina Madrilen bidea itxi zitzaion, gorte nagusiek ez zuten ezta tramitera onartu.

Katalunian garai artan 2006 urtearen bueltan egiten du bere proposamena estatutuaren erreforma egiteko, onartu egin zen estatutuaren erreforma Kataluniako parlamentuan %90rreko baietzarekin bakarrik PP bozkatu zuen kontra, estatutu proiektu horrek gorte nagusietara egin zuen bidaia lege organiko moduan onartu behar zelako, eta gorteetan Madrilentzako "traumatikoak" ziren puntuak ezabatu ziren, adibidez estatutuaren 1.artikuluan esaten zen Katalunia nazio bat zela. PSOE eta CIUren akordio bidez Madrilen egiten da onarpena estatutu errebajatu batena, eta Katalunian plebiszitu egiten da eta aldeko bozka ateratzen da, kontua da PP orduan ez zegoen konforme esta errebajaturako estatutu horrekin eta errekurritu egiten du auzitegi konstituzionalera, eta konstituzionalak 2010ean ematen du sententzia bat, non estatutuari bigarren murrizketa bat ematen zion, horren ondorioz, Kataluniaren haserrea gora egin zuen eta planteatzen ari den gaur egun prozesua independentzia lortzeko prozesua da.

6. ESKUDUNTZA BANAKETA ESTATUAREN ETA EEAAn ARTEAN

Eskuduntzez ari garenean ezberdindu behar da zein den materia edo gaia eta zein den funtzioa; eskuduntza delako gai edo materia (defentsa, etxebizitza, gizarte laguntzak...) baten inguruko funtzio baten gaineko titulartasuna eta funtzioak izango lirateke bi: funtzio legegilea eta funtzio betearazlea.

- **Estatuaren eskumen eskusiboak:** Gai edo materia baten gaineko funtzio guztiak estatuaren titulartasunaren pean geratzen diren horiek; adibidez, armada.
- **Eskumen konpartituak edo partekatuak:** Hemen gertatzen dena da legegintza ahalmena estatuarena dela eta ahalmen betearazlea autonomi erkidegoena.
- **Eskumen konkurrenteak:** Estatuari dagokio oinarrizko araudia eta autonomi-erkidegoei dagozkie araudi hori garatzea eta betearaztea; adibidez, hezkuntza.
- **AAEEen eskumen eskusiboak:** Funtzio legegilea eta betearazlea autonomien esku; adibidez, EAEko polizia (ertzaintza).

7.AUTONOMIA ERKIDEGOEN ANTOLAKETA: EAE eta NFE

Autonomia estatutuak dira autonomia erkidegoetako oinarrizko arau instituzionala. Autonomi estatutuaren eduki minimoa zein den definitzen du konstituzioak:

1. Autonomi erkidegoaren izena
2. Lurraldea
3. Erakundearen izena, antolakuntza eta kokapena
4. autonomi erkidegoaren eskumenak
5. Erreforma prozedura.

EAEko eta Nafarroako auzitegi nagusiak ez dira organo autonomikoak, autonomia hedatzen da eremu legegile eta betearazlea baina ez judizialera.
EREMU JUDIZIALERA EZ DA AUTONOMIA HEDATZEN.

Euskadikoa → Gernikako Estatutua

Nafarroakoa → Foru hobekuntza (LORAFNA)